


ABUZTUKO OHIKUNEA

Patxi Larrion

elkarri irakurriz



 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

PATXI LARRION

Abuztuko ohikunea

azala:

Idoia Beratarbide



elkarri irakurriz

Hau uda mina!

Goizez etortzeko esan diot, baina Idoiak ezetz, bazkalondoan abiatu behar, ia ehun kilometro galdaratan, hurrengo autoak haize girotua behar du, gainera bidea ezagutzen ez badu ere honek gidari nahi, astean zehar ez duela gidatzen eta nik aldiz egunero 120 kilometroko joan-etorria, amore eman eta kopiloto izatera beharturik, entretenimendu faltak izerdia sorrarazten dit, lika-lika eginda amaitu dut, atorra eta larruazala bat eginik.

Iritsi gara, larrainean aparkatzeko esan diot, behingoagatik kasu egin dit, larrainaren goiko bazterrean auto baten gibelean eultzilari bat, zura, oihala eta metala, makinaren plaka herdoiltzen hasian Ajuria S.A. Vitoria irakur daiteke.

– Ni horietako batean ibilitakoa naun. Idoiak ez dio segundo bat baino gehiago eskaini tramankuluari, soa larrainaren ondoko eraikinean du.

– Hori al duk upategia? Arrastaka darama maleta gurgilduna

– Bai, hori dun Txarliren palazioa. Kutxa bat hartu dut autoaren atzealdetik, hau marka gurea, upategi batera kutxa bat ardo eramatea ere.

Idoia larraina eta eraikinaren arteko porlanezko bidean dut zain, laborarien etxea izandakoak hainbat eraikin ditu, etxebizitza aitzinean, eta upategia, eraikinari izena ematen diona, gibelean. Herritik aparte gara, kilometro batera edo, ordokiaren ertzean, bertatik ibarbidea ikusten da, olibadiak, mahastiak eta urrutian uztondoren bat, hori eta berde oro. Aitortu behar dut, badu xarmatik Txarliren palazioak, gure hasmenta erritu ez gutxiren lekukoa, gaztaroen ez zuen harreman handirik arbasoen herriarekin, hamasei urteen bueltan, artean jesuetan ari ginela udari akabera eman beharra, eta gu edozer asmatzeko prest etxetik alde egiteko, upategia libre eta abuztu hondarreko ostiral iluntze batean Estellesa hartu, motxilak zaku, hestebete, arrautza eta makarroiez malamaneran hornitu eta hona etorri ginen, lehenbiziko hartan txorrokopuntan zela iruditu zitzaidan, hura bai odisea, eta hamaika herritan sartu-irtenak Txarliren gurasoen sorterriraino iritsiko baginen, herriko plazen katalogoa egin genezakeen.

Idoiak bidean aitzina segitu du, maletaren gurgipen asotsak salatzen gaitu, ez da mugimendurik sumatzen aurrealdean.

– Lehenbizikoak al gaituk? Idoiari keinu batek ihes egin dio hori esatean, betaurreko beltzen babespean ezin asmatu ametozkoa izan ote den. Bidaia aldarte onean egin dugu, baina batek daki!

– Ez zakinat, bero honekin barneko patioan edota sotoan egonen ditun.

Atzetik jarraitu natzaio, ongi geratzen zaizkio galtza moreak, moreak eta moreak ez direnak ere, urte bete eskas daramagu elkarrekin, elkarrekin edo, norberak bere txokoari eutsi baitio, a ze bikotea gurea, ia hamar urteko aldea gure artean, biok herriko idazkari, tira, nirea da herria, herri gatazkatsua, aspaldiko herraz pozoitua, aldea zagok Idoiaren ibarrarekin, aberats berriak, Hiri Buruzagitik hurbil baino hiriburuzagituak ibarreko herriok, hamarkada batean garia eta garagarra porlana eta adreilu bilakatuak, pasta parrasta, nire herri zahar eta noblean ordea, auzalorren gatazka bideratzeke,

30eko hamarkada ezin gairitu, bai, zalantzarik ez dut, arrunt ongi geratzen zaizkio galtza moreak.

– Hara, Idoia, ezta? Patioaren sarreran xirmenduak pilatzen ari da Txispi, etxeko maiztertzat har dezakeguna, eskuak tixertan garbitzeko imintzioa egin eta muxu ematera hurbildu zaio, masailak dira elkarri ukitu dioten gorputz zati bakarra. Idoiaren berri bazuen ere, Txispik orain ezagutu du.

– Zer diagu, bildots saiheskiak? Kutxa sorbaldan bermatu eta eskua luzatu diot Txispiri.

-Horixe bera! Segi barnera, hau infernua da. Mertxe eta Koldo sotoan dituzue, Txarli ez da oraino heldu.

– Harritzekoa!

Txispi, arrain ona, oro gihar, hirikoa ez den bakarra, unibertsitatea zapaldu gabea, gu baino zaharxeagoa eta gu orori mila buelta ematen dizkiguna, duela hamabost bat urte tarte bat eman zuen hirian, lanean edo, ez zen laketu, herrira itzuli eta besteak beste Txarliren upategiaz arduratzen hasi zen, uztarri berezia bi horiena, batzuek Txarliren bizkar bizi da Txispi, baina ez dago garbi nor noren parasittoa den. Upategira etorri ginen lehendabiziko alditik ezagutzen dut, orduko hartan ez genekien zer zen sukalde bat gobernatzea, eskerrak Txispi bertan zela, bazekien janaria maneatzen, errioxar erara prestatu patata haiek ez ditut erraz ahaztuko, gosea zer den, gogoratu nahi ez dudana lehendabiziko gauean hartu genuen aitzurra da, garai hartan bai, ordukoan egiazko upategia zen hura, ardoa edo ekoizten zuten, edalontzia belzten zuen mama lakarra, mastekatu zitekeen edabea, bestondoa eta ajea dena batera, bai, Txarliren palazioa gure hasmenta erritoen lekuko izan da.

Patioan sartzeko zurezko txorilanga zeharkatu dugu, alboetan garai bateko trepetak, konportak, eskuarak, laia pare bat, apaingarriak, orain Idoia da nire gibeletik datorrena, ez da giro bertan egoteko, ekia altuegia da oraino, patioak zati bat du estalia, hor da harrizko mahaia, bertan diren txolarreak uxatu ditugu, alde irekian, ezkerrean pikondo bat, heldu gabeko pikuz betea, eraikinean sartu, ezkaratza pasa eta satora daraman eskaileran geratu naiz.

– Utzi hor maleta, geroxeago joanen gaitun logelara. Kasu sabaiari!

Behin eskaileran, makurtu behar izan dut, gure gorputz atalek memoria omen dute, baina maiz kolpea hartu ondotik aktibatzen da, oroiminak kaxkarrekoaren tamainaz ohartarazten digu, inoiz ere ondorioez, zenbat kolpe hartu ditudan eskailera honetan, ardo kutxari gogoz heldu diot, ezin dut ardorik gabeko oturuntzarik irudikatu.

– Hau freskura! Bazter batean utzi dut kutxa.

– Ze gisa, iritsi zarete! Mertxek ohi bezain xalo hartu gaitu. Koldok eskuan duen garagardoa mugitu du, hori izan da bere diosala.

– Bai, zuek asmatu duzue goiz etortzearekin. Idoiari begira bota dut hori.

Adiskideen artean gazte garaietatik iraun duen bikote bakarra da Mertxe eta Koldorena, gainera umeak dituzte. Orain Mertzteren herrian egonen dira Mikel eta Uxue, amatxik zaintzen baititu, neska-mutikoak pozik herrian eta Mertxe eta Koldo paradisuan.

Deseroso nago, lika-lika hau hozten hasi dela nabaritzen hasi naiz, ez naiz ba orain hoztuko. Arropaz aldatuko naiz.

– Segituan nator! Zer gerta ere ezkerreko eskuaz babestu dut kaskoa.

– Nik erakutsiko dinat logela. Mertzex bere burua eskaini du Idoia laguntzeko

Bizkor igo ditut eskailerak. Neure gelara eramane du, ezta? Lehendabiziko bisitatik neure gela izan dut etxe honetan, ibarbidera ematen dutenetako bat, argitsuena, Olgarekin hor izan nintzen estrainekoz izaren azpian, Olga, bi urte ikusi gabe, abuztuko juntadizora etorri zen, Txarlik ezer gehiago jakinen du, Bartzelonan ibili da, oraingo honetan Olinpiar Jokuak kari, hara joaten den aldiro bisitatzen du, auskalo, horrenbeste Caballé, Mercury, Jordan eta enparauekin menturaz ez dik betarik hartu, bai to!, ziur bisitatu duela, handik bueltan nirekin elkartzean derrigorrean esan behar zidak “Olgarekin egon nauk”, badirudi ez dela gure arteko lehia amaitu, deitu behar diot. Olgari, prefosta.

Txispi desargetu da, patioan ere ez da ageri, satora beharrean etxebizitza aldera jo dut, bai, Idoia nire logelan da, atea zabalik kausitu eta isil-misilean sartu naiz, bazter batean utzi dut nire maleta, Idoia armairuaren aurrean berea ari da husten, sumatu nau, esekigailu bat du ezker eskuan, eskuinarekin jantzi loreduna ari da zintzilikatzen, hurbildu natzaio, atorra kanpotik darama, ezkerreko eskua paratu diot aldan, eskuinak galtzak igaro eta kuleroaren aurreko mendela bilatu du, hatz luzea kiribilak hasi da egiten kulero barnean, lepaldean musu bat eman diot, Idoiak ez du zirkinik atera, esekigailua astiro zintzilikatu du, poxi bat giratu eta leihoan paratu du soa, ibarbidea sutan dagoela dirudi, eguzkia errezeletatik iragazi eta aurpegia argi-ilunez margotu zaio, ez da luzea Idoiaren kulero barnean kiribilka dudana hatz bakarra, galtzak bere onetik aterata ditu eta niregana itzultzeko imintzinoa egin duenean...

– Hemen nagoooo!

Ostia! Beti ezgaraiko, orain behar zuen agertu Mari Kalanbrek. Konturatu naizenerako lepotik zintzilik dut Mari Cruz, Idoiak egokiera probestu eta istanteko galtzak bere onera ekarri ditu.

– Zeinen ongi, berriz elkarrekin, hau eguraldi ederra! Zenbat elkartuko gara? Ba al dator Javier?

– Bilbora behar zuen. Hatz luzea sudurrera eramane dut Idoiari begira, honek ezin izan dio barreari eutsi. Mari Cruzek bereari jarraitu dio.

– Gaurko ilargia zoragarria izanen da, ikusiko duzue, abuztuko ilargia bete-betean, opil zuria ageriko zaigu ibarbidean.

Mari Cruzen ideia izan zen abuztuko juntadizoarena, hamabost bat urte izanen ditu ohiturak, Mari Kalenbreren hitzetan abuztuko ohikunea, data aldatu daiteke, nolabait

esateko aukeran bi menu ditugu, San Lorentzoko pertseidak edota abuztuko ilbetea, azken urteotan ilargia nagusitu da, gurariak eskatzeko tenorea pasa zaigu nonbait. Ezin dut eraman, tira, bai, ikasi dut jasaten, baina tarteka nire onetik ateratzen nau, eta oraingoan osotoro atera ere.

– Mertxe, Koldo, zuek, Txispi, Txarli, jada zazpi gara. Javier ez dator, ze faszio, zer izanen ote horrek Bilbon. Ehiztari-jaka erantzi du, hippy itxurakoa, auskalo zenbat esku behar izan diren arropa hori apaintzeko, josturak, pasaratzeak, tatxetak nonahi, baina ez nolana, eksklusibitatearen paradigma nire logelako ohe gainean, Mari Kalanbreren ipurdiaren azpian.

– Gaur Ningal eta Inanaren erritua saiatuko dugu, sumeriarra da. Gauerdian du punturik gorena, ez zaizue damutuko. Goazen satora, egarri naiz-eta.

– Zoazte zuek. Idoiari begirada konplizea bidali diot. -Dutxa bat hartu eta segituan naiz zuekin.

– Bikain. Eskutik darama Idoia esaldia amaitu dudanerako.

Sikiera likaz libratuko naiz.

Mari Cruz, alaba bakarra, Txarliren urrutiko lehengusua, lorejalea, terapia alternatibo ororen jarraitzailea, 80ko hamarkadan mendialdeko komunitate batean ibilitakoa, sekta batek abduziturik ote zuen pentsatu genuen, talde hura kostaldera aldatu zenean, Indiarra joatea otu zitzaion, baina, hondarrean, heredentzia ganoraz jaso nahi bazuen, ezin pausaleku honetatik aienatu, gurasoen zaintza du ardura, tira, gurasoez arduratzen diren neskatoak gobernatzen ditu, badauki antolatzen, gaurko erritua lekuko.

On egin dit dutxak, Txarliren palazioan ia logela guztiek bainugela dute. Hori aitortu egin behar zaio, estiloa du, eta ez zaio dirurik falta, Mari Kalanbreren antzera, zakarra eta orbela bi horiena.

Atorra beharrean, niki bat hobetsi dut, gorria, eta lihozko galtzak. Mari Cruzek jaka ahaztu du ohe gainean, neuk jantziko dut ea satora iristean inork ezer esaten didan, tira, bero egiten du oraindik, ez naiz berriz izerditan hasiko. Kalaka bizian ari dira sotoan, zazpi gara oraingoan, baina Txarliren arrastorik ez, Esther batu zaigu, sosegua heldu da, beharko dugu.

Abuztuko errituarena Mari Cruzen ardura da, Idoiarentzat lehendabiziko urtea denez, zer gerta ere ohartarazi nahi izan dut, duela bi urte inuiten ustezko usadioa ekarri zigun, afalondoan kristalezko ontzi bat zorrotik atera eta aurpegia gorritz margotzen hasi zen ilargiari begira, a ze higuin aurpegiak gorri hori azken hilekoaren lagina zela jakin genuenean. Gogoratze hutsak goragalea sorrarazten dit, Olgak bestelako aldarlean segitu zuen erritua, ia perlesiatu, uneren batean ikusle baino jokolari nahi zuela zirudien.

– Non janen dugu? Txispi da mintzo dena. Txarli upategian ez denean berak gobernatzen gaitu.

– Patioan! Errituak hala eskatzen du. Mari Cruzek ez du zalantzarako tarterik utzi. Kixkalduko gara.

– Akort, ba hau da eraman behar dena. Entsaladeriak eta piper berdeak hozkailu txikian dituzue eta goiko arasan ogia, sardexkak eta beste. Lagundu idak! Ni izan naiz interpelatua. Nik lagunduko diot saiheskiak eramaten, ederki baitaki Koldok eskuan duen garagardo botila dela eramanen duen gauza bakarra.

Patioaren alde irekian, bazter batean arranparrila bat dago, bildots saiheskien erretiluak ezkerreko apalean utzi ditugu. Arestian pilatu xirmenduak prest ditu, Txispik ez daki geldirik, sua piztu eta bi poltsa atera ditu zorrotik. Erromero duena erretiluen ondoan utzi du. Bestea zabaldu eta lanean hasi da, horretan ere abila da Txispi, txirria esku bakarraz biltzeko gai baita.

– Nahi al duk? Maria usainak bete-bete harrapatu nau

– Goizegi duk enetako, baina, tira. Atxiki luzea eman diot porruari. Ez naiz sekula sobera zalea izan, baina horrelako juntadizioetan ez diot muzinik egiten. Gainera Txispik oso material ona ibiltzen du, bertakoa, etxekoa.

Patioaren alde estalian mahaia apailatzen ari dira, Koldo eseri da, enegarren garagardoa eskuan, sototik patiora eta hortik logelara, aurrezki kutxan ere ez du askozaz ere gehiago egiten Koldok, etxetik bulegoko mahaira, kafealdi pare bat eta buelta etxera. Eguzkia nabarmen jaitsi da.

– Nahi al duk ezer edateko, garagardo bat? Txispiri proposatu diot.

– Ez, heuk ekarritako ardoa dastatu nahi diat.

– Akort. Azkar egin dut satora joan-etorria, ordurako arranparrilan garrak gorenean dira. Txispi sutearen ingurutik aienatu eta etiketa gabeko botila eskuetatik erauzi dit, kortxokentzekoa prest du, zabaldu eta bi edalontzi hartu ditu apaletik, ardoz erdiraino bete eta horietako bat niri eskaini, sudurrera eraman du edalontzia, onespren keinu egin eta segituan dastatu du.

– Non feriatu duk hau? Txispiren aurpegiak gozotasuna adierazten du.

– Edurena duk.

– Edu! Noiz edo noiz osteguneko azokan ikusi izan diat. Ona ardoa, ia belusa.

– Entseguetan ari dira monobarietalekin.

– Ba honekin asmatu ditek.

– Ba al dakik zer den? Garnatxa duk.

Edalontzi hustu berriak berriz erdiraino bete ditu Txispik. Biok harrizko mahaira hurbildu gara.

– Nik ere probatu nahi dut beltz hori? Mari Cruzek edalontzia eskaini dio Txispiri, honek edalontzia bete eta gainerako guztiengana hurbildu da, Koldok bere edalontzia poxi bat mugitu du bete diezaion, ea tokatzen zaionerako botila hutsik dagoen.

Mahaia ia atondurik dago, lehenbiziko itzalak ageri dira ibarbidean, haizerik ez da, baina orain jasangarria da tenperatura, xirmenduak xirtaka ari dira. Idoiaren urrina dut ondoan, gustura ari dela dirudi.

Mari Cruzek hartu du solasaldiaren lema, tira, ez du askatu oraindik. Segituan, memoria ariketa bat egingen du, ziur, egiaren aitortzeko egiten ahaleginduko da, maiz besteen ahotik jasotako istorioak berritzen dizkigu bereak bailiran, ondoan, Estherrek, gozogo, zuzenduko dio, hutsak baino esajerazioak. Honez gero formula bat asmatu dugu, ken %50 deitzen diogu, Mari Kalanbrek 10 ardo hartu zituela badio, ez ziren 5 baino gehiago izanen. Estherren oroimena ez da nolana hiko, zuzentzearen zuzentzeaz berak asmatu zuen formula.

– Hura sarekadaren urtean gertatu zen.

Sarekadaren urtea, ordutik anitz denbora igaro da, baina badirudi glaziazioak igaro direla. Nork daki, menturaz sarekadarena da lotzen gaituen haririk sendoena. Izan ere, geure ibilbideek elkarrengandik urrundu ez bagaituzte ere, gaurkoa lekuko, ezin esan birika beretik arnasten dugunik. Ezta beharrik ere.

Sarekada gertatu eta gure organizazioa hankaz gora jarri bat izan zen. Mari Cruz ordurako mendialdean zen, hausnarrean, nekez konta zezakeen lehen eskutik arratsalde hartan gertatukoa. Txarrik berehala utzi zituen bere ardurak organizazioan, urrutiratzea behar zuen, Madrilen bi urte igaro eta itzuli zenerako beste martxa bat zeraman, eta soziolistoekin txama egiten hasi zenean urrundu baino mailaz igo zen. Era batera edo bestera soziolistoekin anitz jendek egin du txama eta gutakoen artean ez gutxik. Mertxek berdin lor zezakeen atalburutza hori, jende gutxik zuen berak zuen formazioa zerbitzu berria martxan jarri zenean eta orain soziolistoak alde egitean, Goñiren alaba baino hoberik ez denez, postuari eutsi dio, entzun dudanez heldu berriek, hau da betidanik egiazki agindu dutenek zerbitziburua izateko proposatu nahi dute.

Bestelakoa da Koldo eta bion kasua, alferrontziak aurrezki kutxako lana heredentziaz jaso zuela esan daiteke, nirean aitaren itzalak zerikusia izan zuen idazkari postua eskuratzeko tenorean. Soziolistoak heldu zirenerako lanean ari ginen biok. Estherri aldiz ez diote sekulan ezer oparitu. Javierrekin batera bera izan zen militantzian gehien iraun zuena, tira, biek ala biek militatzen jarraitzen dute, Javier armairutik atera eta gero militantzia gozoan murgildu zen eta Estherrek lanbidea du militantzia.

Bai, sarekada hura dugu hari.

– Tatxan!!! Lorios naiz, ni gabe moldatzen ikasi duzue! Txarli heldu da, ordu honetan patioan izanen ginela ondorioztatu, autoa larrainean utzi eta atari nagusitik sartu da, besoak zabalik, esku batean ardotegi baten zorroa darama, bestean delicatessen batena, kameren atzean bada ere ikuskizunaren mundua du lanbide eta aginte makila hasmentatik hartzeko asmoa du.

– Hona gutizia pare bat. Mertxe eta Esther eserita diren aldean utzi du delicatessenaren poltsa. Biratu eta niri eskaini zidak beste zorroa

– Sartu ezak txanpaina hozkailuan.

– Cava esan nahi duk, Bartzelonatik ekarria. Zirtolari izan nahian ni.

– Ez, txanpaina duk, Bartzelonakoa akitu da, orain bestelako pausalekuen xerka abiatu.

– Aspertu al zara Bartzelonan? Mari Cruzek besotik heldu dio, balirudike argi bila hurbildu zaiola, protagonismo nahia, kontuz ibili beharko du, pega-pega segitzen badu zerren baten antzera kiskal daiteke-eta.

– Hura amaitu da, etorkizuna telebista pribatuetan da. Herenegun heldu nintzen, banuen hirian zerbait lotu beharra. Aldaketa gertatua ere geu gara negoziazio aretoen gakoa dugunok, eskuinak gu gaitu bitartekari Madrilen.

Zeinen gutxi kostatu zaion ia guztion arreta bereganatzea. Ni kenduta Idoia da soraio aritu den bakarra.

– Goseturik heldu naiz. Has gaitezen. Mahaiburuan plantatu da etxeko jabea.

Arrats apala da, aurki ekialdetik ageriko da ilargia, txolarre bat pikondoan laketu da, Txispik txingarretan pausatu du lehen parrillada, saiheskiak erromeroz maneiatzen hasi da. Haragi errearen usainak hartu du patioa. Mahaian Txirri-aska errezitatzen ari gara, erretolika akitu eta topa egin dugu.

– Nongo ardoa da hau? Txarlik mama gozoa dastatu ondotik edalontzia poxi bat goratu du, ekiaren hondarreko izpiekin jostetan aritu da ardoa aztertzen.

– Txispik ekarri du. Egokiera probestu behar dut, nire eskutik jasotakoa gutxiesteko abilidade aparta du morroiak.

– Zinez gozoa, Ribera delakoan, belusetik hurbil baita, baina ukitu karbonikoak nahasten nau.

– Tira, Ribera, Ribera, bai, ia ardo oro ibaiertz batean laketzen da. Txispi nire begirada konplizeaz ohartu da erretilua saiheski bete mahaiaren erdian utzi duenean.

– Menturaz, barietatea asmatzeak lagunduko hau laribintotik ateratzen. Kopon! Ziria sakatu behar diot.

– Merlot?

– Ba, ez. Txarliren begiradari eutsi diot

– Syrac akaso? Urduritzen hasia dela iruditu zait

– Ez al da zuen agentzia “Rosado de Navarra” kanpaina daramana? Harrotzen hasi naiz, burtzia prest dut.

– Baina hau beltza duzue? Orain bai, deseroso dabil etxeko nagusia. Ia galduta, pentsa, Koldoren konplizitatea bilatu du, honek ez du imintziorik egin.

– Garnatxa, txo! Gainera ekoizlea ezagutzen duk, Eduren ardoa. Txispi izan da sufrikarioa geldiarazi duena.

– Edu, ez al zen Frantzian? Hori esatean Esther zegoen aldera begiratu du.

– Tira, Frantzia, Frantzia, Edu han zenean gu orain gauden baino hurbilago zegoen Hiri Buruzagitik. Gozo bezain tinko erantzun dio Estherrek.

Koldo unerik aproposenean ausartu da saiheskiekin, horien barneratzeak giroa lasaitu du, Mari Cruzek egokiera probestu eta berriz ere abuztuko ohikunea hartu du hizpide, Idoiarekin saiatzen ari da, ez du ongi ezagutzen, bera bezain sinesgogorrek gutxi, ez dut uste Tarot kartak botatzera ausartuko denik.

Bigarren erretilua ekarri ondotik Txarlik txanpaina ekartzeko agindu dio Txispiri. Aginte makila berreskuratzen hasi da. Ardoarenak min egin dio, gainera eusko-bizardun baten arnoa Ribera batekin erkatzea ez da bere kosmogonian sartzen. Gogoan dut “Rosado de Navarra” kanpaina hasi zenean, Estherrek txantxa moduan esan ziola ea euskaraz paratzeko asmorik ba ote zuten, tradiziozko ardo gorri naparra gogora ekarriz, Olgak aldiz oximoron bat proposatzen zuen, Nafarroako Gorria, ezina zure botilan. Olga, bai, deitu behar diot.

Txanpaina akitu da eta trago luzeen tenorea heldu, konbinaturik ez, errituan ez omen da gas gehiegirik komeni, rona eta bi whisky mota harrizko mahaiaren gainean, patxarana ez da falta, gu beti gorriak.

Txispik zorroa zabaldu du eta ingenieritzan hasi da, bi paper handi elkarri itsatsi eta txirri luze eta oparoa egin du, ohi baino tabako gutxiago gehitu dio.

Egiaren aitortzeko alkohola eta maria izan dira urteetan upategiko drogak, giro honetan, toki honetan ezohikoa da sudurrak zuritzearena, eta ez da aditu faltagatik izanen. Harrigarriena zera da, koadrilaren muinean heroinaren eraso jaso ez izana, denok galdu dugu ezagunen bat, zaldiak eraman zuen Estherren lehengusua dugu hurbilen izan dugun kasua.

Txispik Txarliri eskaini dio porrutzarra, honek piztu eta ke-ahokada geldo eta sakona bota du, txirriak ez ditu Esther eta Koldoren ezpainak ezagutu, nigana heldu da, ke-ahokada sarriak bota dizkiot. Gaur ez da iluntasuna osotoro abailduko ibarbidean, argi zilarkara da hedatu olibadi eta mahastietan, opil zuriak hego-mendebaldeko ataka ixten du.

– Prest al zaudete? Mari Cruzek tapiz bat paratu du patioaren erdian, eta emakumezkoak horren gainean esertzera gonbidatu, bertatik begiratuta ilargia patioko txorilangaren gainean kulunkatzen ari dela dirudi.

Harritu nau Idoiak, biribilean eseri baita, nerabezaroa ekarri dit gogora, sarbide-erritua zen ia edonorentzat zu baino nagusiagoa zen gazte baten gonbidapena jasotzea. Hori izan al da Idoia parte hartzera eraman duen bulkada?

Eskutik heldu diote elkarri, Mari Cruzen unerik gorena heldu da.

– Hona ohikune sumeriarra, Ningalen alaba Inana arranguraturik iratzarri zen abuztuko egun hartan... Ahotsa modulatu eta hasi da itxurakeria, edertasuna hitzez itsusteko manerak.

Mariaren eragina hasi naiz sumatzen, eserita nagoen tokitik Idoiaren aurpegia aurrez aurre dut eta nire moduan ari dela sumatu nahi izan diot, asteburuetan ohikoa dugu maria porru bat apailatzea, erre ondotik izaren azpian denbora geldotzen da eta inoiz edo beste plazera luzatu, Idoia eta bion erritua gogoratzeak Mari Kalanbreren sasimantratik isolatu nau.

Akitu du behingoz, Txispi ingeneritzan aritu da otoizlaburrak iraun duen bitartean.

– To, piztu ezak Inanaren txirria. Niri eskaini dit porrua. Gehienok barre egin dugu, Mari Cruze ez dio grazia handirik egin. Harrigarria, minutu bat ixilik eman dugu, ezhoikotasunaz jabetu gara, eta denok, Mari Cruz barne, barrez lehertu gara.

Idoiari so egin diot, ronari hurrupada txiki bat eman dio, goizegi da oheratzeko, baina ez da gogo faltagatik izanen.

Txarlik izotz-koskor bat hartu eta whisky botiletako bat pasatzeko eskatu dit, baretu dela dirudi, baina gutxi fida, baietz ezer mamurtzen ari.

– Trumilka ari dira sartzen. Txarlik ahots tonua aldatu du, seriotasuna dario.

– Nor? Non?

– Gobernuaren jauregia txinoz ari zaigu betetzen. Tonuari eutsi dio

– Zertaz ari haiz?

– Satorren gisara ari dira.

– Satorrak gu gintuken, ezta? Txispik ukabila eraman du ahora barre-algarari eusteko.

– Serio ari naiz. -Txispiri begira-. Atzo jauregira joan nintzen, agentziako kontuak tarteko eta nirea izandako bulegoan nor eta Peli.

– Peli, hori ez zen gure promozioakoa. Mertxe ari da.

– Hori, unibertsitatera ere ez zen joan. Bedela zen. Urrutikoan, UNEDen ikasi omen du eta hor duzue jauregian letradun. Burua ezkerrerantz mugitu du hori esatean. -Ez al da bitxia, eskuina itzuli behar maoistek gora egin dezaten.

– Eta ze inporta zaik hiri, heu haiz Madrilen enbaxadore, ez al da hala? Azkenean mintzo naiz.

Ez dakit zer joko darabilen. Hobe dut isilik, baina nola asetu jakinmina. Bai, gutako gehienok gutxienez neskato kofiaduna izan dugu sortetxean, txikitatik izan dugu eskiatzeko aukera, lana zer den unibertsitatea akitu ondotik ezagutu dugu, tira, baten batek ez du sekulan ikasiko, ezta nahi ere. Baina zer dela eta gauden honetan txino

izandako batekiko espa hizpidera ekarri. Txarlik ez du erantzun. Mari Cruzen aharrausiak gero eta sakonagoak dira.

– Bon, gu ohatzera goaz, bihar jaien bezpera dugu herrian. Mertxe ari da hizketan, altxatu eta mahaia jasotzeko imintzinoa egin du, Estherrek eta Txispik keinu bera egin dute, gainekoa berean utz zezan, Koldo ordurako atarian da. Mari Cruzek egokiera probestu eta haiekin da aienatu.

Solasaldiak iraganera eraman gaitu, baina arantzarik gabeko eremuetan ari gara. Azken porruak ageriko utzi du Idoiaren logalea. Atea seinالاتu diot buruarekin eta irriño gisakoa marraztu du. Mahaian, Txarli, Esther eta Txispi utzi ditugu. Kamara geldoan egin dugu logelarako bidea. Idoiak ohean eserita sandaliak erantzi ditu, horiek baztertu eta luze etzan da, laguntza eske ari dela entelegatu nahi izan dut, nikia erantztean oreka galdu eta atzeraka erori naiz, zoluan dut ipurdia eta arropak burua estaltzen dit, barregarri nago, galtza estuak erantztean sortzen den asotsa aditu dut, nik oraindik jantziak ditut nireak, biluztu naizenerako Idoia izaren azpian da, bizkarra ematen dit, ez diot ezker besoa sumatzen, eskua txorian du, hurbildu natzaio, elkarren ondoan gara, bere ipur masailean habiatu da nire txolarrea, ez gara erritmo berean ari, hasperenka hasi da, sexu-atseginean ere norberak bere burua du hobekien ezagutzen. Aiduru da lo gozoa.

. . .

Sakon eta labur egin dut lo, argiantzari egunsentia dario, Idoiaren begitarte irrikorrari erreparatu diot, altxatu, espartinak jantzi eta patio aldera abiatu naiz, argitasuna gero eta nabariagoa da, mugaldeko haitzen urrekara dut aitzinean, ez naiz egunsentiaz gozatu nahi duen bakararra.

– Egun on goiztiar hori! Esther ari zait harrizko mahaitik.

– Egun on, bai. Atzo berandu arte?

– Ez, ez gintuan sobera luzatu. Txispi zuek alde egin eta segituan joan zuan.

– Eta Txarli? Goiz alde egitearekin ezer galdu ote nuen jakin nahi dut.

– Solasteko gogoz edo. Te katiluari heldu dio eta hurrupada txikia eman dio. –Tira, arranguraturik.

– Ez dun txinosen aferagatik izanen. Ba al din horrek kexatzeko arrazoirik? Ate oro ditin zabalik eta!

– Ez duk hori, Pelirena aitzakia zuan, ez zakian zuek nola aienatu. Bartzelonakoa ez omen da gertatu berak nahi moduan.

– Ba, atzokoan telebista pribatu batera jauzi emateko prest zela zirudien.

– Eta emanen dik, berandu baino lehen. Ez, ez duk hori, Txarlik Olga dik afera.

Deblauki mutu geratu naiz, ez dut jakin zer galdetu. Olgak bai Txarlirekin bai nirekin izan zuen harremana eta Txarlirekin egun ere badu, baina inoiz norbait ondoan behar izan duenean Esther izan du euskarri, konparazio baterako abortuarenean, ez Txarlik ez nik ez genuen Olga Londresera lagundu, oker ez banaiz Txarlik Hendaian egin zezakeela, egin ziezaioketela aipatu zion, ba omen zuen berak klinika baten berri, berak lagunduko ziola, Olga ez zen fido, Londres hobetsi zuen eta bidaia hartan Esther izan zuen ondoan, gutako batena behar zuen, baina emakumezkoen aferak zirela iritzita arduragabe jokatu genuen. Bai, kontu horietan igualak gara Txarli eta biok, ederki dakigu axolagabe jokatzeko, menturaz, nik are zabarrago dakit.

– Txarlik ez dik sekula Olga ahaztu. Hori esan eta beste hurrupada eman dio teari Estherrek.

– Ezta nik ere.

– Ezberdina duk, noiztik ez haiz Olgarekin egon, noiztik ez diok deitu?

– E, ez zakinat. Ia total ari naiz.

– Txarliren nahikotasun hori itxurakeria duk, heuk ere ederki dakik hori. Olga ikusten duen aldiro erremiak kiskaltzen du. Azken urte hauetan, Txarli Bartzelonara joaten zen aldiro elkartu ohi dira. Azken honetan ihes egin zio.

– Nora joan dun ba Olga?

– Olga, inora ere ez, esperoan zagok.